

“EMAKUMEAK ENPRESAREN ERRONKAREN AURREAN: IDEIATIK PROIEKTURA, PROIEKTUTIK ERREALITATERA” IKASTAROAK ARGI UTZI DITU EMAKUMEEN EKINTZAILTZAREN AUKERA NAGUSIAK ETA ARRISKU OHIKOENAK

Hamarnaka lagunek hartu dute parte Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak, Euskal Unibertsitatearen XXVII. Uda Ikastaroen eta XX. Europako Ikastaroen barruan, antolatu duen “Emakumeak enpresaren erronkaren aurrean: ideiatik proiektura, proiektutik errealitatera” udako ikastaroan.

Ikastaroan mota askotako hainbat edukiri buruz hitz egin dute espezialista gailenek, eta horri esker, emakume ekintzailearen erradiografia osoa agerian utzi da, emakumeen ekintzailtzaren aukera nagusiak eta arrisku garrantzitsuenak azaleratuz.

[\(informazio +\)](#)

Saioak, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Iñaki Peñaren “Aldatu behar dugun errealitate bati buruzko datuak” izeneko hitzaldiarekin hasi ziren. Peñak, Euskal Herriari dagozkion “Global Entrepreneurship Monitor” (GEM) taldeak eskainitako datuetan oinarrituz, azaldu zuenez, beste herrialde batzuetan gertatzen den bezalaxe, Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeek gizonezkoek baino enpresa gutxiago sortzen dituzte, baina emakume sortzaileek ikasketa-maila altuagoarekin ekiten dioten ekintzailtzari, beren negozio-proiektuetan diru-kopuru txikiagoak inbertitzen dituzte eta beren inbertsioaren itzultze txikiagoa espero dute.

Ikastaroak emakumeen ekintzailtzaren erradiografia osoa eskaini zuen

Iñaki Peñaren hitzaldiaren ostean, Donostiako IKEI Aholkularitza-enpresako Antonio Corralek eta Iñigo Isusik hartu zuten hitza. Aholkulariek emakumeen ekintzailtzari buruz gaur egun nazioartean martxan dauden jardunbide egoki batzuen gainbegiratu zabala eskaini zuten. Corralek eta Isusik, hain zuzen, emakume ekintzailearen inguruan Austria, Finlandia, Frantzia, Luxemburg edo Islandia bezalako herrialdeetan martxan jarri dituzten hainbat ekimen azaldu zituzten.

Julia Fernández eta Marisol Goikoetxea, Aspegi (Gipuzkoako Profesional eta Enpresari Elkarte) elkarteko lehendakaria eta lehendakariordea, hurrenez hurren, izan ziren hurrengoak hitza hartzen. Beren azalpenak, ordezkutzen duten elkartearen historia

laburki deskribatuz hasi zituzten; emakumeen ekintzailetzaren ezaugarriak azpimarratu zituzten ondoren, historian zehar egon diren emakume ekintzaile batzuen inguruan hitz eginez eta emakumeek garatzen dituzten enpresa-jardueren irudia gizarteari gehiago ikustaraztea eskatuz.

*Emakume ekintzaileari dagozkion hainbat jardunbide egoki aztertu ziren, nola
Espainia mailakoak, hala Europa mailakoak*

“Emakumeak enpresaren erronkaren aurrean: ideiatik proiektura, proiektutik errealitatera” ikastaroaren mahai-inguruan hiru emakume-enpresaburuk hartu zuten parte beren esperientzia ekintzailea aurkezteko. Hirurak ekoizpen-sektore desberdinetakoak dira eta beren ibilbide profesionalak ere oso desberdinak izan dira. Horrela, Mainer Santamaría Legazpiko (Gipuzkoa) ZuriZuri garbitegi industrialaren sustatzailea da; Carmen Yorno, berriz, Zaragozako CYO Proyectos ingeniari-tza-aholkularitzako arduraduna, eta Begoña Yoldi, Irungo (Gipuzkoa) Teknia zentro medikoaren bazkide sortzailea da. Hiru emakumeek, ekintzaile gisa izan duten esperientziaz hitz egin zuten eta beren jardueren alde onenak eta txarrenak zehaztu zituzten.

Ikastaroaren bigarren eguna Donostiako Psikologia Fakultateko Isabel Pizarroren “Emakume ekintzailearen erronka” hitzaldiarekin hasi zen. Pizarrok adierazi zuenez, emakume ekintzaileek talde oso heterogeneoa osatzen dute, eta hala ere, horren gainean lanean dihardute oso oinarri teoriko gutxirekin.

Inmaculada Álvarez Morillasek, OMEGA (Organización de Mujeres Empresarias y Gerencia Activa) elkarte arduradunak, Espainian azken hogeita hamar urteotan “emakume izena” duten jardunbide egokien berrikuste zabala egin zuen. Morillasek, 1975eko Emakumearen Legetik Europar Batasuneko “Equal” programetara, hainbat alde aztertu zituen, hala nola, berdintasunerako planak, Emakumearen Institutuko Artezkaritza Kontseilua sortzea, mikrokredituei emandako bultzada edo komunitate-instituzioek alor horretan egindako lehen ekimenak.

Ikastaroari amaiera emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko Joseba Amondarainek, Emekin programaren hasierako ikusmoldea, gaur egungo egoera eta etorkizuneko lan-ildoak zehaztu zituen.